



Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

2016/12/12 Udaletxean 18.00-19:20



Gaurkoan bildu gara,

- Adur Ezenarro (Bildu)
- Iñaki Dubreuil (PSE)
- Jose Ignacio Mendizabal (Herri ekimena)
- Carlos Gonzalez (Irabazi)
- Manolo Iturrioz (EAJ)
- Patxi Arrospide (Herritarra)
- Miren Nekane Apaolaza (Herritarra)
- Rosa Aurkia (Ingurumen teknikaria)

Gai ordena

Bileran ondoko gaiak landu ziren:

1. **Aurreko aktaren onarpena**
2. **Edukiontzien bidezko sistema eta hondakinen prebentzio astea balorazioa**
3. **Ordenantza**
4. **Hurrengo bilera**

Aurreko aktaren onarpena

Aurreko akta onartu da.

Akta honen gaineko iradokizunak:

HERRI EKIMENA: Sobran dago Landarlanek egin duen komentarioa.

EAJ: Lotsagarria iruditzen zait hau erabiltzea bilerara etorri ez izanaren argudio bezala.



IRABAZI: Akta honetan ezin dira mahai honetatik kanpo dauden gaiak planteatu.

PSE: Mahai honetako kideei errespetu falta bat iruditzen zait. Alkatearekin arazoak baditu ondo, baina taldeari hori ezin zaio egin.

IRABAZI: Espero ez izatea aurrekari bat. Aldarrikapen bat egiten du. Edozein gai ezin dugu mahai honetan landu.

PSE: Alkatearen jarreragatik izan da. Mahai honetatik kanpo dagoen gai batengatik izan da.

BILDU: Bakoitzak berea defendatu beharko du.

	<p style="text-align: center;">Ordiziako hondakin mahaiaren bilera</p> <p style="text-align: center;">2016/12/12 Udaletxean 18.00-19:20</p>	
---	---	---

EAJ: Alkatearen jarrera kriminalizatu da.

PSE: Mahaiatik kanpo dagoen gai bat da.

IRABAZI: Ezin dugu beste gaien bozgorailu bat bihurtu. Ezin ditugu gai pertsonalak mahai honetara ekarri, nik hau ez dut konpartitzen.

EAJ: Aralarko gaiengatik zen, honek ez du zentzurik mahai honetan.

BILDU: Nahi ditugun buelta guztiak eman ditzakegu. Agian izan daiteke Ingurumen elkarte bat bezala gai batzuetarako deitzen dituztela eta besteetarako ez. Landarlanek azaldu beharko du.

PSE: Hondakin mahaiko eskudunak gu gara baina Enirio – Aralar Mankomunitatekoa Alkateak dira.

BILDU: Edurne etortzen denean berak azalduko du.

TEKNIKARIA: Aurreko akta ezin da aldatu eta gaurko aktan egindako iradokizunak azalduko dira. Horrelako zerbait gertatzen bazaigu berriro ez dugu aktan jasoko.

EAJ: Ez badu etorri nahi ez etortzeko baina mota honetako argudioak ez erabiltzeko. Gai hau ez da mahai honetan landu.

Edukiontzien bidezko sistema eta hondakinen prebentzio astea balorazioa

TEKNIKARIA: Azaroan ere gaikako bilketa tasa %77koa da. Gainera, urrian baino kilo gutxiago jaso dira eta ehunekoa mantendu egin da.

Datu oso pozgarria dela esan da. %85eko tasa lortzea errazagoa ikusten da nahiz eta ehunekoa gehitzea askoz ere zailagoa izango den.

2015eko abenduan 20.000 kg gehiago bildu ziren beste hilabeteekin konparatuz. Gabonetan hondakin asko sortzen da eta gaikako bilketaren inguruan sentsibilizazio kanpaina bat egitea beharrezkoa dela esan da. 2016ko abenduko datua ikusiko dugu eta 2017rako planteatu beharreko gai bat izango den ikusiko da.

Hondakinen bidezko sistema balorazioa

Sasietak emandako aurreko bilerako duden erantzuna

- Edukiontzi puntuen egoera: puntu beltzarik somatu duzue??

Aldaketa egin ondorengo lehen egunetan edukiontziak dauden tokietatik kanpo bai poltsak azaltzen zirela pilatuta, zintzilikatzeko monolitoen inguruan. Monolitoak kendu ostean egoera normalizatu da.



Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

2016/12/12 Udaletxean 18.00-19:20



- Puntuak non poltsak lurrean uzten dituzten: Iturtxo, poligonoan bat, astokale. Besterik???

Puntu gehienetan daude poltsak; batzutan poltsa bakar bat beste batzutan dozena erdi bat. Puntuak zenbat eta herritar gehiago atenditu orduan eta poltsa gehiago azaltzeko aukera. Dena den, inpresioa orokorrean ez da txarra. Guk ez ditugu poltsak kontatzen eta aparte pisatu ere ez beraz ezin dizut datu zehatzik eman. Zuen ustez, une honetan garai batean baino poltsa gehiago edo gutxiago daude lurrean?

- Edukiontzien sistema blokeatuta geratzen bada, giltza maestrorik baduzue sistema hau desblokeatzeko??

Ez dago horrelakorik. Sarraila konpondu edo aldatu egin behar da nahitanahiez.

- Inpropioen daturik baduzue?

Ez daukagu daturik. Abenduaren amaieran biohondakinaren karkaterizazioak egin ditu GHK-k. Enbaseei dagokionez Ecoembesek egin ditu Legazpiko plantan baina ez dakigu noiz izango den hurrengoa (normalean urtean 3-4 egiten ditu).

- Iturtxoko puntuan kajak eta kartoiak kanpoan uzten dituzte, edukiontzi barrura sartu gabe. Kaxak botelaz beteta ateratzen dituzte eta botelak dagokion edukiontzira botatzen dituzte baina kaxa lurrean botata uzten dute. Plastikoz betetako poltsak ere kalean uzten dituzte.
- Txartelak ez dute ondo funtzionatzen. Poligonoan (kutzako plazan) organikoaren edukiontzia beti irekita dago.
- Txartelak etxebizitzan %92 batetan banatu dira. Etxebizitza hutsan datua falta den %8 horren barruan dago.
- Sasietakin bilera egin da, egon diren kexak aztertuz. Iturtxoko puntuaren jarraipena egin omen dute baina orain ontzien edukiontzia ez dagoela beteta esan dute, zerbait puntuala izan zela.
- Beiraren edukiontzia Mapfre ingurura pasa zuten, botilak botatzen dituzte baina kajak lurrean botata uzten dituzte. Arazo hau tabernak sortzen dute. Sasietari eskatuko zaio inguru honetako tabernetara joateko bisita bat egitera.
- Kaleko zakarrontziak: Gipuzkoa kalean oso gaizki egoten dira. Egun argitan daude zikinaz beteta. Garbitzaileei galdetu nola ikusten duten. Garbitzaileak beiraren edukiontzi ingurua ez dute garbitzen, beira zatiak lurrean daude eta ez dute garbitzen (Plazuelako puntua oso gaizki dago).
- Anbulatorioko ondoko atean, Santa Maria kalean, poltsak lurrean lerrotatuta egoten dira. Udaletxeko langileak edo zinegotziak hau ez dute ikusten.
- Gabonetako egun berezietan Garagartza plazan beiraren edukiontzi bat edo bi gehiago jartzen dira.



Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

2016/12/12 Udaletxean 18.00-19:20



- Kexak Ingurumen teknikariarengana bideratzen dira eta denak bateratzen ari da.
- Lehenengo puntu beltzak kentzen saiatu behar gara eta ondoren gaikako bilketa tasaren ehunekoa handitzen hasi behar dugu.
- Kexan inguruan Joaquin Ibarbia kaleko kexarik egon al den galdetu da. Kexak badaude, edukiontzien puntu bat eskatzen dute. Lehen puntuak bazegoen baina Sasietak esan du orain ez dagoela soluziorik eta Ongizate Sailetik hau konpontzeko esan du. Puntu honetan, Arrasaten duten lanzadera sistema erabili daiteke.
- Poligonoan oinezko bide berri bat jarri dute eta bisibiltate gutxia dago. Nafarroako Etorbidean bukaeran dago.
- Puntuak gaizki badaude, argazkiak atera eta teknikariari bidali Sasietara bidaltzeko.

Hondakinen prebentzio astea balorazioa

HONDAKINEN KARAKTERIZAZIOA

Azaroak 19an, arratsaldeko 19:00etan egin zen. Iturtxoko puntutik errefusaren edukiontzia ekarri zen eta 5 poltsa atera ziren. Poltsa hauetatik 2 tabernatakoak ziren eta bertan hondakin guztiak batera botata zeuden, gaika bereizi gabe. Sasietari honen berri emango zaio eta bertako teknikaria taberna hauetara joateko eskatuko zaio.

Iturtxoko puntuan tabernak hau egiten badute beste puntuetako tabernak nola egiten ari diren jakitea egokia izango litzateke. Beste puntuetan ere jarraipen bat egin.

Elkarte gastronomiko inguruak ere aztertu beharko lirateke.

POLTSA BERRERABILGARRIAK ETA TUPPERRAK

2.500 boleto jaso dira, komertzioetara poltsa berrerabilgarri eta tupperrakin joateagatik.

Zozketako sariak eman dira. Argazkia Ordiziako udaletxeko web orrialdean dago.

PAILAZOAK PLAZAN

Azaroak 25ean egitea egokiagoa ikusten zen baina pailazoak ez zeuden libre. Orduan, 26an egitea pentsatu zen baina egun horretan November festa zegoen, plaza ekimenez beteta zegoen eta atzeratzea erabaki zen.

Lariz-eri galdetuko zaio ze asteburu dagoen libre pailazoak antolatzeko.



Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

2016/12/12 Udaletxean 18.00-19:20



Ordenantza

Hurrengo bileran lantzen hasiko gara. Ordenantza ereduaren kriba bat dago eta hau hurrengo bilerarako begiratuta ekarriko da.

Hurrengo bilera

Urtarrileko bilera: urtarrilaren 10ean arratsaldeko 18:00etan.